

## ALKATETZAREN MEMORIA

### 2014KO AURREKONTUAK

Ondoren azaltzen duguna 2014ko udal aurrekontuaren memoria da.

Pasaiako Udal Gobernutik aurrekontu hauek prestatzeari ekingo diegun honetan, badirudi krisi orokorrak gailurra jo duela. Baina susperraldia motela izango dela aurreikusten da. Bizi dugun gizarte- eta ekonomia-egoeraren jakitun garenez, ezinbestean aurrekontu hauek pasaitarren ongizatea lortzera bideratu behar ditugu, nahiz eta testuinguru zail batetik abiatu, barruko nahiz kanpoko arrazoiengatik.

Ildo horretan, lehenik eta behin, jasaten ari garen sistema ekonomikoa bidegabea dela salatzen dugu: kapitalaren interesak lehenesten dira herritarren interesen gainetik. Kultura politiko eta ekonomiko horrek herritar ugari uzten ditu babesik gabe, eta tokiko administrazioek egoera horiei erantzun behar diete, gero eta finantziario eta baliabide gutxiagorekin.

Halaber, Foru Aldundiak bildutakoa bidegabeki banatzen dela salatzen dugu: udalek % 10 jasotzen dute; beste erakunde batzuek, berriz, finantziarioa jasotzen dute erabilgarritasun eskasa duten eta ingurumenaren eta ekonomiaren arloan iraunkorrak ez diren proiektuak bultzatzeko, hiriburuetan bizi ez diren herritarren ezkutuan.

Azkenik, uste dugu herri-administrazioek neurriak hartu behar dituztela, aberastasuna birbanatze aldera, hau da: gastu publikoaren finantziarioaren zama handiena gehien dutenen kontura egin eta herritar ahulenei lagundu. Horregatik, ez dugu ulertzen Batzar Nagusietan onartu den PFEZen erreforma, errenta gehien dutenen zerga-zama arinduko duelako, eta sarrerak murriztuko dituelako; eta horrek guztiak udal finantziarioari eragingo diolako, beste neurri batzuk hartzen ez badira.

## **Jarduteko ardatzak.**

Aurreko atalean azaldutakoa aintzat hartuta, Udalak aurrekontua egiteko garaian zuhurtziaz eta zorroztasunez kalkulatu behar ditu sarrerren kontusailak, eta gastu-kredituetan errealista izan beharra du. Beraz, 2014ko ekitaldiko jarduketa-ardatzak hauek dira::

•**Gastu arruntari eustea.** Udala denez herritarrengandik gertuen dagoen erakundea, ezinbestekoa da gastuari eustea, ematen diren zerbitzuak murriztu gabe, eta baliabide materialak eta giza materialak optimizatuz.

•**Gobernu Talde honek hitzemandako ildo estrategikoei eustea.** Osorik onartzen dira arlo hauetan diharduten sailen proposamenak: Gizarte Ekintza, Berdintasuna, Migrazioa, haur eta gazteen babesa eta Euskara. Pertsonak eta haien beharrak izango dira ardatza, Pasaian gizarte kohesioa lortzearren.

•**Udalerri osoan hondakinak biltzeko sistema berria abian jartzea.** Bi alditan gauzatuko da: Lehenengo aldian Antxon ezarriko da, eta gero Trintxerpen eta San Pedron. Gaikako bilketa sistema berriarekin, ingurumenari mesede egin eta lanpostuak sortzeaz gain, gastuen igoera soberan konpentsatzen da salmentengatik lortutako sarrerekin, eta inbertsioa urte gutxitan amortizatuko da.

•**Garbiketa-zerbitzuaren kudeaketa berreskuratzea.** Zerbitzu-kontratua iraungitzen denean, Udalak hartuko du bere gain kudeaketa, gastuak aurreztu eta zerbitzua hobetzeko helburuarekin.

•**Sektore ahulenei bideratutako laguntzak handitzea.** Gizarte-larrialdietarako laguntzak handitzea eta zergak eta tasak ordaintzeko laguntzak mantentzea.

**Aurrekontu arrunta % 6,86 igo da aurreko ekitaldiarekiko, eta balio hau du: 20.030.288 euro (2013an 18.745.079 euro). Eragin berezia izan dute aurrekontuan inbertsioen igoerek.**

**Erakunde autonomikoekin batera aurrekontua 22.429.842 eurokoa da, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dagoen hitzarmena gehitu aurretik.**

## Irteerak.

Irteeren atalean, honako aipamenak azpimarratuko nituzke:

- Pertsonal gastuei ezarritako igoera hondakinen bilketarako ezinbesteko kontratazioei loturik dago, nola kaleko garbiketari hala aurreikusten den epai judizial bati eta hirurtekoei. Osterantzean, soldatak eta Elkarkidetzarako arrisku ekarpenak izoztuta mantentzen ditugu.
- Gastu arruntaren murrizpena, nagusiki, hondakinen bilketarako sistema aldatetari lotua dago, eta baita, loturaz, kaleko garbiketaren kudeaketa berreskuratu izanari ere; horrek, alde batetik, lehen kapituluko igoera biderkatzen du, eta bestetik, beharrezko inbertsioen amortizazio azkarra eta Udal kontuen hobekuntza zehazten ditu.
- 98.500 euroko partida bat zehazten da Oarsoaldeak diseinatutako enplegu planerako.
- Bere osotasunean jasotzen dira Gizarte Zerbitzuetatik, Migrazio eta Parekidetasunetik, Euskara eta Gazteria sailetatik jasotako ekarpen guztiak.
- Finantza pasiboari dagokionez, likidazio negatiboen murrizketa nabarmena ematen da. Maileguren saldoak 14/12/31n %17,24ko zorpetze maila izango du aurrekontuarekiko. Zentzu honetan, aipatu, maileguren saldoa 2011 amaieran 569.000 eurokoa zela eta ekitaldi honen amaieran 3.476.000 eurokoa izango dela, 2.214.000 euroko murrizketa ondorioztatzen delarik bertatik.
- Inbertsioei dagokionez, hazkunde garrantzitsua ematen da, honako lokal edo instalakuntzen berritzea azpimarratuz: Andonaegiko kirol zelaia, Erroteta, Gaztelekua, Arrokaundieta eta AEK, autoen eta garbiketa gailuen erosketa, hondakinen bilketarako materiala eta ekipamentu informatikoa. Horrekin batera, Bidasoa Goia urbanizazioarekin hitzarmena ere jasotzen da.

## Sarrerak.

Sarreretara bideratutako atalean, honakoak zehaztu nahi genituzke:

- Bigarren ataleko (Obra eta eraikuntza lanak) sarreraren murrizketa, Aktibitate Zergetan zentral termikoari aurkeztuko zaion likidazioarekin eta duela aste batzuk onartutako Zerga eta Tasen Ordenantza aplikatzean aurreikusten den igoerarekin berdinduko da.
- Hileta zerbitzuen emakidaren bidez, iaz hasitako bidetik, sarrera berriak bilatzeko ahaleginarekin jarraituko da.
- Sarrera errepikari berria, Nabarra Bou plazako kanona da, zeina, Aurrekontuen Exekuziorako Oinarrietan egindako moldapen baten bidez, PMSa finantzatzera bideratuko den.
- Beste sarrera errepikari bat, hondakin, paper, kartoi eta ontzi arinen salmenta da.
- Transferentzia Arruntei dagokionez, Diputazioak jakinarazitako Fondo Foraleko aurrekontuen zenbatekoa jasotzen da.
- Kapital-gastuen finantzazioa osatzeko, 166.195 euroko mailegu bat aurreikusten da.

Pasaian, 2014ko urtarrilaren 21a.

Amaia Agirregabiria

Pasaiako Alkatea